

## KANPO HARREMANETARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

**1.- KANPO HARREMANETARAKO IDAZKARITZA NAGUSIARI DAGOZKION DIRULAGUNTZAK (2025 KANPO HARREMANETARAKO PLANAREKIN LOTUTA, 2025 EUSKADI BASQUE COUNTRY Nazioartekotzeko Esparru Estrategian integratua).**

### **1.4.- EUSKAL ETXEEI ETA EUSKAL ETXEEN FEDERAZIOARI ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZAK (Jarduerak eta funtzionamendua)**

AURREKONTUA: 22 01 1311 23 452 19/3314: 4. kapitulua; **2022:** 778.584 €; Konpromiso-kreditua **2023:** 656.046 € / FINANTZAZIOA: % 100 Eusko Jaurjaritza

**Araua:** Martxoaren 18ko 50/2008 Dekretua, Euskal etxeentzako dirulaguntzen erregimena arautzen duena eta 186/2021 Dekretua, uztailearen 27koa, Euskal etxeei dirulaguntzak emateko araubidea ezartzen duen dekretua bigarren aldiz aldatzen duena (indarrean dagoen dirulaguntzen araudiaren erreferentziak eguneratzea eta ordaintzeko modua jardueraren bideragarritasunera egokitzea, ordainketa-kopurua bira murriztuz.

**Helburua:** Kanpoan den euskal komunitatea indartzea

**Jarduera:** Kanpoan den euskal komunitatea sendotzea Euskal Etxeen bidez

**Adierazlea:** Euskal Etxeak murgilduta dauden gizarteetan jarduerak sustatzeko laguntzak kopurua: 300

**Prozedura:** Lehiaketa bidezko prozedura

**Organoa:** Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia / Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako zuzendaritza

**Helburu duten sektorea:** Euskal gizataldeak

### **2025 KANPO HARREMANETARAKO PLANA**

#### **5. ARDATZA: EUSKAL KOMUNITATE GLOBALA ERAIKITZEA**

##### **5.1 HELBURU ESTRATEGIKOA.- Euskaldunen atzerriko presentzia historikoa sendotzea**

**ILDOA:** 5.1.1.- Euskal Etxeen eta euskal gizataldeen sarea sustatzea eta babestea

**Jarduera:** B) Euskal Etxeen jarduerari eta azpiegiturari laguntzea

**Adierazlea:** Lagundutako Euskal Etxeen jardun kopurua. (Planaren indarraldi osoan lagundutako jarduera guztien adierazle orokorra: 3.500)